



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko otsailaren 16a

22. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/ITP-00004. Interpelazioa, Nafarroako hiriarteko garraio publikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-24/POR-00061. Galdera, desagaitasunen balorazioa egiteko itxaron beharreko denbora murrizteko neurri iragarriari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (4. or.).

—11-24/POR-00062. Galdera, mendekotasunaren balorazioak ebazteko batez besteko epea murrizte aldera Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak hartutako neurriari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (5. or.).

—11-24/POR-00070. Galdera, lehortea eta Ukrainako gerra dela-eta ematen diren laguntzei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (5. or.).

—11-24/POR-00071. Galdera, 2022-2023 kanpainako mahats-bilketa berderako eta destilaziorako laguntzei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (6. or.).

—11-24/PES-00070. Galdera, merkatu-erreserbaren eta erreserbatutako kontratuaren betetze-maila dela-eta jasotako datuei buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (6. or.).

—11-24/PES-00071. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obren aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresen kontabilitate-betebeharrei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (7. or.).

—11-24/PES-00072. Galdera, Nafarroako Aratxea Adierazpen Geografiko Babestuko behi-haragia sustatze aldera abiarazitako kanpainari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (8. or.).

—11-24/PES-00073. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren organigraman Zainketen Zuzendaritza sartzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (9. or.).

—11-24/PES-00074. Galdera, Euskarabidean euskara ikasteko baimenei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (9. or.).

- 11-24/PES-00075. Galdera, Erriberako autobus-lineak berregituratzeari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00076. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailetzaren organigramari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00077. Galdera, Bidean-Transporte Sanitario de Navarra SL sozietate publikoa abian jartzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00079. Galdera, Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuaren Gidaritza Batordea eratzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00080. Galdera, 2023an lan-istripuen kopurua igo izanari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- PER20230030. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko ikus-entzunezkoen teknikari-ofiziala izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzeko (funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa). Izendapena (15. or.).
- PER20230062. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts, funtzionario-araubidekoak eta A mailakoak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda (16. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren ebazpena, 2024ko otsailaren 12koa, zeinaren bidez arauak onesten baitira, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutako bisitak eta lan-bilkurak egiteko moduari buruzkoak (17. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/ITP-00004. Interpelazioa, Nafarroako hiriarteko garraio publikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako interpelazioa, Nafarroako hiriarteko garraio publikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Azken urteotan, hiriarteko garraio publikoaren zenbait adjudikazio berri dira. Berritutako adjudikazio horietan arazoak sortu dira, bai eta kexa ugari jaso ere. Bestalde, zenbait adjudikazio berri zeko atzerapena gertatzen ari da, eta auzi horrek lehenetasuna du ukitutako landa eremuentzat.

Hori dela-eta, Nafarroako hiriarteko garraio publikoaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau egiten diot Lurralde Kohesiorako kontseilariari.

Iruñean, 2024ko otsailaren 8an.

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00061. Galdera, desagaitasunen balorazioa egiteko itxaron beharreko denbora murrizteko neurri iragarriei buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, desagaitasunen balorazioa egiteko itxaron beharreko denbora murrizteko neurri iragarriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Kontseilariaren ustez, Nafarroan desgaitasunak baloratzeko itxaron-zerrendak murrizte aldera iragarritako neurriek noiz emanen dituzte fruituak?

Iruñean, 2024ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/POR-00062. Galdera, mendekotasunaren balorazioak ebazteko batez besteko epea murrizte aldera Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak hartutako neurriei buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, mendekotasunaren balorazioak ebazteko batez besteko epea murrizte aldera Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrásen,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Mendekotasunaren nahiz desgaitasunaren balorazioak oso garrantzitsuak dira, eskubideak baliatzeko atea irekitzen duen aldetik. Halatan, zenbat eta gehiago luzatu denboran, orduan eta gehiago atzeratzen da desgaitasuna eta mendekotasuna artatzeko sisteman aurreikusten diren zerbitzuak eta prestazioak baliatu ahal izatea.

Zure departamentuak zer neurri hartu du mendekotasunaren balorazioak ebazteko batez besteko epea (2023ko urrian, 3,47), gure taldeak 2023ko azaroaren 3an jada salatu zuena, murrizteko?; zer neurri hartuko du desgaitasunaren balorazioak ebazteko batez besteko epea (une honetan, 11 hilabetekoa) murrizteko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-24/POR-00070. Galdera, lehortea eta Ukrainako gerra dela-eta ematen diren laguntzei buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, lehortea eta Ukrainako gerra dela-eta ematen diren laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Bartzordean izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egiten dio José María Aierdi kontseilariari, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Bartzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroa da lehortea eta Ukrainako gerra direla-eta lehen sektoreari funts berekiekiko berariazko laguntza gutxien eman duen erkidegoetako bat. Zergatik?

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-24/POR-00071. Galdera, 2022-2023 kanpainako mahats-bilketa berderako eta destilaziorako laguntzei buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, 2022-2023 kanpainako mahats-bilketa berderako eta destilaziorako laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egiten dio José María Aierdi kontseilariari, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Sektoreak 2022-2023 kanpainarako eskatu zuen mahats-bilketa berderako eta destilaziorako laguntzak gaitzea, Errioxan eta Araban egin zen bezala, baina ez zenuen halakorik egin. Zergatik?

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-24/PES-00070. Galdera, merkatu-erreserbaren eta erreserbatutako kontratuaren betetze-maila dela-eta jasotako datuei buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, merkatu-erreserbaren eta erreserbatutako kontratuaren betetze-maila dela-eta jasotako datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Kontratu publikoei buruzko Foru Legeak ezartzen duenez, aurreko urtean adjudikatutako kontratu publiko guztien % 6 gutxienez erreserbatutzat kalifikatu behar dituzte foru administrazio publiko guztiek, salbuespenik gabe. Derrigorrezko gutxieneko horrek merkatu-erreserba izenekoa ezartzen du; erreserbatutako kontratuak, aldiz, hura lizitazio jakin batean gauzatzea dakar.

Nafarroako Gobernuaren zein unitate administratibok biltzen ditu Nafarroan merkatu-erreserbaren eta erreserbatutako kontratuaren betetze-mailari buruzko datuak? Zer datu ditu Nafarroako Gobernuak azken urteetan merkatu-erreserbaren eta erreserbatutako kontratuaren betetzeak Nafarroan izan duen bilakaerari buruz? Nafarroako Gobernuaren ustez, zein faktorek dute eragina bilakaera horretan? Zer estrategia garatzen ari da

Nafarroako Gobernua horien betetzea errazte aldera? Zer estrategia aplikatuko ditu Nafarroako Gobernuak epe motzean eta ertainean horien betetzea errazte aldera?

Iruñean, 2024ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-24/PES-00071. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obren aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresen kontabilitate-betebeharrei buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Belateko tunelak bikoizteko obren aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresen kontabilitate-betebeharrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak egiaztatu al du Belateko tunelak bikoizteko lanen aldi baterako enpresa-elkarre adjudikazioduna osatzen duten enpresek kontabilitateko eta erregistroko betebeharrak egunean dituztela?

Egiaztatu badu, zein izan da emaitza?

Adjudikatu aurretik egiaztatu ezean, zergatik saihestu da egiaztapen hori?

Iruñean, 2024ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-24/PES-00072. Galdera, Nafarroako Aratxea Adierazpen Geografiko Babestuko behi-haragia sustatze aldera abiarazitako kanpainari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroako Aratxea Adierazpen Geografiko Babestuko behi-haragia sustatze aldera abiarazitako kanpainari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Ukrainako gerraren ondorioz, elikaduraren balio-katearen jarduera ekonomiko batzuek lehen-gaien prezioen igoera nabarmena pairatu dute. Baliabide-mendekotasun handiena duten sektoreak, hala nola pentsu, olio, ontzi, bilgarri eta abarren kasuan, ekoizpen-kostuak nabarmen igo dira. Era berean, energia-erabilera oso trinkoa duten jardueretan ere eragina izan du energiaren eta erregaien prezioaren igoerak. Egoera konplexua da, bai kostuen ikuspuntu batetik, bai hornikuntzari dagokionez.

Gehien kaltetutako sektoreetako bat haragitarako behiena da; alde batetik, krisiak ekoizpen-gastuak handitzea ekarri du, eta, bestetik, kontsumo-joerak ere ez diote mesederik egiten sektoreari.

Horrekin guztiarekin, Eusko Jaurlaritzak, HAZIren bitartez, "Bonokela" ekimena jarri du abian, herritarren artean behi-haragiaren kontsumoa sustatzeko kanpaina berri eta estrategikoa.

Kanpaina horretan parte hartzearen bidez, herritarrek aukera izanen dute deskontu-bonu

esklusiboak, "Bonokela" izenekoak, eskuratzeko. Bonu horiek kanpaina parte hartzen duten harategietan banatuko dira, eta horiei esker, kontsumitzaileek 15 €-ko erosketa bakoitzeko 10 € baino ez dute ordaindu beharko, baldin eta Eusko Label bereizgarria duen behi-haragia erosten badute; horrela, 5 €-ko zuzeneko aurrezkoa lortuko dute.

Kanpaina hilean astebetetz egingen da, urtariletik ekainera. Dagoeneko kanpaina abian da lehen deskontu-bonuekin, urtarrilaren 29tik otsailaren 3ra bitarte, biak barne, edo izakinak amaitu arte.

Kontsumitzaileek deskontu-bonuak zuzenean eskuratu ahalko dituzte kanpaina parte hartzen duten harategietan erostean, kanpainak ezarritako berariazko asteetan. Deskontua automatikoki aplikatuko da Eusko Label behi-haragia erostean. Parte hartzeko, erabiltzaileek inprimaki sinple bat bete beharko dute bonuan, beren datu pertsonalekin, edo afiliatuen merkataritza-txartelak erabili, horrelako txartelak dituzten establezimendu laguntzaileen kasuan.

Ekimen honen helburua bertako behi-haragiaren kontsumoa sustatzea da, abeltzaintzako eredu iraunkor, kalitatezko eta estrategikoa baten pean, landa-eremuari eusteko betetzen duen eginkizunagatik eta euskal ekonomia osoari egiten dion ekarpenagatik.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkezten ditut, idatziz erantzun dakien:

1.-Nafarroako Gobernuak planteatu al du Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak hasitakoaren antzeko kanpainarik egitea "Nafarroako Aratxea" adierazpen geografiko babestuko behi-haragiaren kontsumoa sustatze aldera?

2.-Zer kostu izan lezake Nafarroan "Bonokela" ekimenaren antzeko kanpaina bat egiteak?

3- Nafarroako Aratxea Adierazpen Geografiko Babestuaren aldetik eskaerarik jaso al da Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak abiatu duen antzeko ekimen bat abian jartzea aztertzeko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/PES-00073. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren organigraman Zainketen Zuzendaritza sartzeari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren organigraman Zainketen Zuzendaritza sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak zer aurreikuspen darabil Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren organigraman Zainketen Zuzendaritza sartzeari dagokionez? Zuzendaritza hori sartzeari aurreikusten al du, zer toki zehatz hartuko luke organigraman, zer eginkizun izanen lituzke eta noiz jarriko litzateke abian?

Iruñean, 2024ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00074. Galdera, Euskarabidean euskara ikasteko baimenei buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Euskarabidean euskara ikasteko baimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei idatziz erantzun diezaien.

Hiru kidego hauetan, zenbat langilek eskatu dute Euskarabidean euskara ikasteko baimena? Zenbati eman zaie euskara ikasteko baimena? Zein ikastaro mota egin dute, eta zein mailatan? Zenbati ukatu zaie? Ukatu zaien langileen kasuan, zein izan dira, zehatz-mehatz eta bana-banaka, ukatzeko eman diren arrazoiak? Zein dira klaseetara joateko baimena onartzeko edo ukatzeko irizpideak? Non daude jasoak? Azken 5 urteotako datuak eskatzen ditut.

-Hezkuntza Laguntzako Espezialistak

-Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia

-Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua

Iruñean, 2024ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/PES-00075. Galdera, Erriberako autobus-lineak berregituratzeari buruzkoa

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako galdera, Erriberako autobus-lineak berregituratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako Departamentuko Garraio Zuzendaritza Nagusiak idatziz erantzun dezan:

Erriberako zenbait udal haserre agertu dira 2023an abian jarri ziren autobus-linea berriek ez dituztelako eskualdearen beharrianak asetzen; izan ere, herri horiek eta Iruña lotzeko autobusen

maiztasunaren urritasunak derrigorrezkoa egiten du Tuteran autobusez aldatzea. Egoera hori bereziki larritzat jotzen dute Iruñera kontsultara edo tratamendua jasotzera joan behar duten gaixoen eta zaharren kasuan, zeren Tuteraraino joan behar dute, han autobusez aldatu eta kasurik gehienetan Tafallan nahitaez gelditu, halako moduan non are gehiago luzatzen baita bidaiaren denbora.

Gauzak horrela, ukitutako udal batzuek eta herritarren plataformek departamentuari erreklamatzeko diote berriz azter ditzan Erriberako 24.000 pertsona ingururi eragiten dieten lineak eta maiztasunak. Zehazki, Fitero eta Iruña lotuko lukeen linea zuzen bat, ukitutako gainontzeko herrietatik igaroko litzatekeena (Fitero, Cintruénigo, Corella eta Castejón) eta beste linea batzuetako maiztasunaren antzekoa izanen lukeena (Funes, Caparroso, Zarrakastelu edo Irurtzun).

Hori dela-eta, galdera honi erantzutea nahi dut:

Departamentuak pentsatuta al du linea horiek berrantolatzea eskualdearen garraio-eskariari erantzuteko eta Iruñearekin zuzenean lotzeko? Bestela, zer konponketa proposatzen du eskualdean dagoen arazoa konpontzeko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-24/PES-00076. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailetzaren organigramari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailetzaren organigramari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailetzaren organigrama mantenduko da ala aldatu egingen da, batez ere Zaintzen, Etxeko Arretaren, Arreta Soziosanitarioaren eta Ekintza Komunitarioen Zuzendariordeztari dagokionez?

Iruñean, 2024ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00077. Galdera, Bidean-Transporte Sanitario de Navarra SL sozietate publikoa abian jartzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Bidean-Transporte Sanitario de Navarra SL sozietate publikoa abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Bidean-Nafarroako Osasun-garraioa sozietate publikoa 2023ko apirilean sortu zen, Nafarroako Gobernuak zenbait konpromiso bete zitzaizkion, bai 2022ko aurrekontu-akordioan gure talde parlamentarioarekin lortutakoak, bai bere programa-akordioak, bai sektoreko sindikatuekikoak.

Enpresa publikoak honako hau du xede: "osasun-garraioaren zerbitzua ematea halakorik behar duten pazienteei, segurtasun, irisgarritasun eta pazientearen beharrezko egokitasun baldintzetan eman ere, prestazio horretan parte hartzen duten gainontzeko gailu publikoekin koordinatuta, unean-unean indarrean dauden zerbitzu-estandarrekin bat".

Iragan abenduan egin zen enpresa publiko horren zuzendari kudeatzailearen izendapena.

Osasun-garraioaren nahiz Nafarroako Babes Zibilar eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztai-

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek

laren 1eko 8/2005 Foru Legearen edukiaren gaineko azterlana egiteko lan-mahaiak 2010ean eginitako txostenean esaten zen Nafarroako Larrialdiko Osasun-garraioaren Sarea honako baliabide hauek osatzen dutela: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren beraren larrialdietarako anbulantziak eta Osasunbideak hitzartutakoak eta Nafarroako Foru Komunitateko Suhiltzaileen Zerbitzuaren beraren larrialdietarako anbulantziak.

Kontuen Ganberak Nafarroako osasun-garraioari eta larrialdi-sistemari buruz 2012ko urtaririlean egindako txostenean honako hau esaten zen:

"Suhiltzaileek parte hartzeari dagokionez, gure iritzian egokia da, eta balio erantsia ere sor lezake, suhiltzaileen prestakuntzari eta lanbide-formazioari eske, OBE anbulantzietan beste pertsona bat jartzen delako eta beren ibilgailuek izaten duten hornidura material bereziagatik. Hortaz gainera, hobeto aprobetxatzen dira erabilgarri dauden baliabideak, zeren suhiltzaileen jardueraren ehuneko 38, egindako mobilizaziotan neurtuta, osasun alorreko garraioari baitagokio".

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkeztu ditut, idatziz erantzun dakien:

1.- Zer urrats falta dira egiteko Bidean-Nafarroako Osasun-garraioa enpresa jardunean aritu ahal izan dadin?

2.- Enpresa publiko horren ardura duen aldetik, Osasun Departamentuak hasi al du elkarrizketarik edo negoziatorik osasun-garraioaren sektoreko

sindikatuekin, zerbitzu hori une honetan enpresa pribatuetan ematen duten langileak subrogatzeko?

3.- Subrogazioak garraio zerbitzu hori ematen ari ziren enpresa pribatuetako beste aktibo batzuk ukituko al ditu? Horiek identifikatuta al ditu enpresak? Zeintzuk dira?

4.- Enpresa publikoak nola eman nahi du osasun-garraioaren zerbitzua? Egungo jarduketa-eremuak mantenduko al dira antolamenduari dagokionez (Iruña/Baztan-Bidasoa-Altsasu/Lizarratafalla/Zangoza-Erronkari-Zaraitzu eta Tuteran)? Larrialdietako garraioaren baseak gaur egungo leku beretan egonen al dira?

5.- Larrialdietako osasun-garraioari dagokionez, bat egiten al duzu Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko langileen parte-hartzeari buruz Kontuen Ganberak egiten duen balorazioarekin?

6.- Enpresa berriak errespetatu egiten al du Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren parte-hartzea, Nafarroan urtetan eta urtetan egin den moduan?

7.- Larrialdietako osasun-garraioan aurrerantzean ere koordinatuko da Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren parte-hartzea, gaur egun SOS Nafarroa-112 Larrialdien Zentroaren bidez egiten den moduan?

Iruñean, 2024ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/PES-00079. Galdera, Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuaren Gidaritza Batzordea eratzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuaren Gidaritza Batzordea eratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

2021eko otsailaren 1ean, sinatzen dudan parlamentari honek idatziz erantzuteko galdera bat aurkeztu nuen (10-21/PES 065) eta bertan aintzat hartzen zen Arartekoak Q20/1122 espedientea dela-eta emandako ebazpena. Ega Bizirik Elkartek Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren aurka aurkeztutako kexa bat izapidetu zen, Nafarroako Gobernuak kontserbazio bereziko eremuetan, bereziki Ega eta Urederra ibaietakoan, agertutako pasibotasuna dela-eta. 2021eko martxoaren 4an eman zitzaion erantzuna aipatu galderari. Erantzunean halaxe zioen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak:

“Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuko gidaritza batzordeari dagokionez, uste dugu datorren apirilko bigarren hamabostaldian egin ahalko dela hura eratzeko bilkura”.

Galdera hori –Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak noizko aurreikusi du Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuko gidaritza batzordea formalki eratzea, ia urtebete pasa baita eratuko zela erantzun zuenetik?– 2022ko martxoaren 16an berretsi nuen. Kontseilariak 2022ko apirilaren 25eko idazki baten bidez erantzun zion galderari:

“Biodibertsitatearen Zerbitzuak ezin du une honetan beste data bat eman; hala ere, jakinarazten du Ega eta Urederra Ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren gidaritza batzordea izanen dela eratzten lehena, batzorde berrien artetik. Data jarri bezain laster deialdia egingen zaie batzordea osatu behar duten erakundeei. Zerbitzu honek uda baino lehen egin nahi luke bilera hori”.

2024ko urtarrilean gaude, eta oraindik ez Gidaritza Batzordea eratu; hortaz, honako jau jakin nahi dut:

1.- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak noizko aurreikusten du eratzea Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuko gidaritza batzordea?

2.- Zerk eragin du departamentuak ezer ez egitea eta 2021etik hona aldiro esatea gidaritza batzorde hori eratuko zela baina orain arte eratu ez izana nahiz eta izendaturik dauden batzordea osatuko duten entitateak?

Iruñean, 2024ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/PES-00080. Galdera, 2023an lan-istripuen kopurua igo izanari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, 2023an lan-istripuen kopurua igo izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Kontseilariak zer balorazio egiten du Nafarroan 2023an lan-istripuen kopurua handitu izanaz? Izan ere, abenduaren erdialdean, Eskubide Sozialetako Batzordean egindako agerraldian adierazi zuen lan-istripuen kopurua jaitsi egingen zela 2023an.

Iruñean, 2024ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

PER20230030. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko ikus-entzunezkoen teknikari-ofiziala izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzekoa (funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa)

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Bukatu da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko ikus-entzunezkoen teknikari-ofizial postu bat –funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa– betetzeko oposizioa (PER20230030), zeinaren deialdia 2023ko ekainaren 8ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 2023ko ekainaren 16ko 127. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an hartutako erabakiaren bidez, onetsi zuen Miren Gurutze Ongay Domench andrearen alde epaimahai kalifikatzaileak egindako izendapen-proposamena, zeina 2024ko urtarrilaren 26ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 2024ko otsailaren 6ko 27. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Zerbitzu Orokorretako buruak txostena egin du interesdunak deialdiko 8.3 oinarrian adierazita

dagoen dokumentazio guztia behar den epean eta moduan aurkeztu izanari buruz. Hartara, txosten hori ikusita eta deialdiko 9. oinarrian ezarritakoa-ekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Parlamentuko funtzionario izendatzea, ikus-entzunezkoen teknikari-ofizial gisa, teknikari-ofizialen kidegoan, jarraian aipatzen den izangaia:

Miren Gurutze Ongay Domench andrea.

2. Ezartzea izendatuak hilabeteko epea izanen duela, izendapena jakinarazten zaionetik aitzina, bere karguaren jabetza hartzeko.

3. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta zerbitzuburu guztiei igortzea.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

PER20230062. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts, funtzionario-araubidekoak eta A mailakoak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko

Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda

22/2024 Ebazpena, otsailaren 13koa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarena, zeinaren bidez onesten baita aipatu prozeduran onartuak nahiz baztertuak izan diren izangaien behin-behineko zerrenda.

2023ko abenduaren 14ko 258. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdiak –ale-

gia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts, funtzionario-araubidekoak eta A mailakoak, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoak– 5. oinarrian ezarritakoarekin bat, honako hau EBATZI DUT:

1. Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda hauek onestea:

A) TXANDA LIBREA

A.1) ONARTUTAKOAK (TXANDA LIBREA):

Izen-abizenak
Andueza Osés, Saioa
Buisán Aguirre, Miriam
Fernández Martínez, Adrián
García De la Vega, Víctor
Idoate Saralegui, María de la O
Nuñez Iriarte, Miguel Ángel
Ordoki Guarch, Ignacio
Robles Vitas, Sarai
Salgado Barreira, Marta
Sorroche Sedano, Miguel
Suberviola Arróniz, Esther
Vidaurreta De la Cruz, Miguel

A.2) BAZTERTUTAKOAK (TXANDA LIBREA):

Ez dago inor bazterturik.

B) IGOERA TXANDA

B.1) ONARTUTAKOAK (IGOERA TXANDA):

Izen-abizenak
Mena García, Tomás

B.2) BAZTERTUTAKOAK (IGOERA TXANDA):

Ez dago inor bazterturik.

2. Interesdunek zilegi izanen dute ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrerako **HAMAR EGUN BALIODUN**eko epean aurkeztea egoki jotzen dituzten erreklamazioak behin-behineko ze-

rendaren aurka, eta, kasua bada, eginak dituzten balizko akatsak zuzentzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren ebazpena, 2024ko otsailaren 12koa, zeinaren bidez arauak onesten baitira, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutako bisitak eta lan-bilkurak egiteko moduari buruzkoak

2008ko martxoaren 10ean onetsitako Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren ebazpenaren bidez onetsi egin ziren Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutako bisitak eta lan-bilkurak egiteko moduari buruzko arauak.

Aipatu ebazpena, egun indarrean dagoena, geroztik bi aldiz aldatu da.

2023ko martxoaren 24ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara eman zen Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu berria, Osoko Bilkurak 2023ko martxoaren 16an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

2023ko Erregelamendua onetsi eta indarrean sartzearekin, aurrekoetan ez bezala erregelamenduz aipatzen da lan-bilkurak egiteko araubidea, 61.3 artikuluan.

“Batzordeko eztabaidetako arau komunei eta agerraldietarako ezarritakoei jarraikiz egingen dira lan-bilkurak, eta haietan Parlamentuko ordena eta gizalegea errespetatuko dira.”

Transkribatutako artikuluan xedatutakoa eta lehen aipatu den Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2008ko Ebazpenak jasotakoa kontuan hartuz, zalantzak sortu ziren bi arau horien arteko bateragarritasunari eta batak zein besteak izan behar zuten interpretazioari buruz. Hori dela eta, zilegi da honako ebazpen hau onestea, ahalbidetze aldera era egokiagoan interpretatzea Erregelamenduan jasotakoa eta lan-bilkurak modu ordenuagoan egitea.

Horrenbestez, Eledunen Batzarrak aldeztu aurretik erabakia hartuta eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 45.2 artikuluekin bat, lan-bilkurak izapidetu eta egiteari buruzko ondoko arauak onesten dira.

Lan-bilkurak

1. Talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentarietako Mahaiari eskatu ahal izanzen diote lan-bilkurak egin daitezkeen, interes publikoko edozein gairi buruz informazioa jasotzeko haien ustez beharrezkoak diren pertsona, kargu, elkarte nahiz entitateekin. Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, eskatutako lan-bilkurak egin daitezkeen erabaki ahal izanzen du. Bilkura horietara hedabideak joan ahalko dira, baldin eta eskatzaileak edo agerraldia egin behar duenak eskatuta Mahaiak hori erabakitzen badu.

2. Eskarian jasota ageriko dira agerraldiaren xedea nahiz deitu beharreko pertsona edo entitateak, eta, deitutakoa entitate bat baldin bada, ondokoak zehaztuko dira: haren legezko ordezkaria, helbidea, telefonoa eta agerraldira etorriko direnekin harremanetan jarri ahal izateko beste edozein datu. Batzordera bost ordezkari etorri ahalko dira gehienez ere. Pertsona edo entitate pribatuen kasuan, galdetu beharko zaie ea onartzen duten agerraldia egitea.

3. Bilkura egiteko erabakia jakinaraziko zaio deitu beharreko pertsonari, eta orobat adieraziko zaio Mahaiko eta Eledunen Batzarreko Idazkaritza geroago harekin harremanetan jarriko dela, agerraldiaren eguna eta ordua zehazte aldera.

4. Batzordeko eztabaidetako arau komunei eta modu berean agerraldietarako ezarritakoei jarraikiz egingen dira lan-bilkurak, ezertan ukatu gabe arau hauetan eta Erregelamenduen 61. artikuluan aurreikusitako berezitasunak, eta haietan Parlamentuko ordena eta gizalegea errespetatuko dira.

5. Lan bilerak taxuz egite aldera, ondokoak jakinaraziko zaizkie agerraldia egin behar dutenei:

a) Identifikatu egin beharko direla Parlamentuko sarreran, eta bilerara etorriko diren pertsonen

eragiten dien aldaketarik baldin badago, aldaketa-
ren berri eman beharko diotela, bezperan gu-
txienez ere, Mahaiko eta Eledunen Batzarreko
Idazkaritzari.

b) Bilera kasuko batzordeko buruak zuzenduko
duela. Hark, talde eskatzailearen mintzaldi labur
baten ondoren, hitza emanen die agerraldia egin
behar dutenei, agerraldiaren xede den informazioa
eman dezaten hogei minutuko gehieneko aldia,
eta ondoren talde parlamentarioen eledunek iza-
nen dute hitza, galderak egin edo haien jarrera
azaltzeko bost minutuko gehieneko aldia. Bilera
bukatuko da agerraldia egiten ari direnek bost
minutuko gehieneko aldia emandako eran-
tzunarekin. Hori guztia galarazi gabe, ba-
tzordeburuak galdera edo ohartarazpenetarako
txanda berri bat ireki ahalko du, hizlarietakoren
batek eskatuta. Hitza hartzen dutenek bi minutu
izanen dituzte eta ondoren agerraldia egiten due-
nak labur erantzunen die, gehienez ere iraupen
berarekin.

c) Agerraldia egiten dutenak ez direla bost
baino gehiago izanen.

d) Agerraldian euskaraz aritzeko edo baliabide
informatikoren bat erabiltzeko asmoa baldin badu-
te, garaiz jakinarazi beharko diotela Mahaiko eta
Eledunen Batzarreko Idazkaritzari.

6. Kasuan kasuko batzordearen deialdian,
gehienez ere, hiru lan-bilkura sartuko dira.

Xedapen indargabetzailea. Arauak
indargabetzea.

Indarrrik gabe uzten da espresuki 2008ko mar-
txoaren 10ean onetsitako Nafarroako Parlametu-
ko Lehendakariaren Ebazpena, zeinaren bidez
onetsi egin ziren Nafarroako Parlamentuko
Mahaiak baimendutako bisitak eta lan-bilkurak
egiteko moduari buruzko arauak.

Azken xedapena. Indarra hartzea

Arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari
Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko
dute indarra.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

